

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### DIPUTATU NAGUSIA

#### Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia

*Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak kudeatutako programen kontura dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen aldaketa.*

Diputatuen Kontseiluak, 2023ko apirilaren 25eko bileran, ondorengo erabakia hartu du:

Gipuzkoa lurralde euskalduna da, eta euskaraz bizi nahi du. Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahia eta asmoa da herrialdearen errealitate soziolinguistikoarekin bat etortzea Foru Aldundiaren hizkuntza jarduerak eta euskararen sustapenerako garatuko dituen ekimenak. Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez betetzen du legeak agindutako sustapen lan hori, euskararen erabilera sozialaren esparruan lanean ari diren elkarteei, erakundeei eta norbanakoei dirulaguntzak emanaz.

Horrela, Diputatuen Kontseiluak, 2023ko martxoaren 21eko bileran, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura emango diren dirulaguntza lerroen oinarri arautzaile orokorrak eta berariazkoak onetsi zituen, bai eta dirulaguntza horien 2023ko deialdia ere. Horretarako, 967.718,00 euroko gastua baimendu zuen, erabaki horretan jasotako aurrekontu sailen kargura.

Dirulaguntza lerro horien artean dago itzulpen praktikak egiteko bekei dagokiena. Horien oinarri espezifikokoak I.4 eranskinean daude jasota. Hala ere, eranskin horren idazketan 3. oinarri espezifikokoan ez da jaso, onuradunek bete beharreko baldintzen artean, C1 maila egiaztatzen duen euskara titulu baten jabe izateko eskakizuna, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera, Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradu ikasketetan euskara ez bada A hizkuntza. Betekizun hori dirulaguntzen lerro hori arautzen duten aurreko oinarrietan jaso izan da.

Beraz, proposatzen da aipatutako oinarri espezifikokoan sartzea beka horien onuradun izateko baldintza, hau da, C1 maila egiaztatzen duen euskara titulu baten jabe izatea, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera, Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradu ikasketetan euskara ez bada A hizkuntza.

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, diputatu nagusiak proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

#### ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Aldatzea Gipuzkoako Foru Aldundian itzulpen praktikak egiteko beka ematea arautzen dituzten oinarrien 3. oinarri espezifikoa (Diputatuen Kontseiluaren 2023ko martxoaren 21eko erabakiaren I.4 eranskina), Hizkuntza Berdintasuneko

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DIPUTADO GENERAL

#### Dirección General de Igualdad Lingüística

*Modificación de las bases reguladoras para la concesión de subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Igualdad Lingüística.*

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 25 de abril de 2023, ha adoptado el siguiente acuerdo:

Gipuzkoa es un territorio vasco parlante, que desea vivir en lengua vasca. Es propósito de la Diputación Foral de Gipuzkoa que su práctica lingüística y las iniciativas que desarrolle para la promoción del uso del euskera sean coincidentes con la realidad sociolingüística del territorio. En este contexto, la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de la Dirección General de Igualdad Lingüística, viene efectuando las acciones de fomento que estipula la ley mediante la concesión de subvenciones a las asociaciones, entidades y particulares que trabajan a favor del uso social del euskera.

Así, por acuerdo de este Consejo de Gobierno Foral de fecha 21 de marzo de 2023 se han aprobado las bases reguladoras generales y específicas de las líneas de subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Igualdad Lingüística, así como la convocatoria 2023 de dichas subvenciones, autorizándose al efecto un gasto de 967.718,00 euros, con cargo a las partidas presupuestarias contempladas en dicho acuerdo.

Entre dichas líneas de subvenciones figura la correspondiente a las becas de prácticas de traducción, cuyas bases específicas se contemplan en el anexo I.4. Sin embargo, en la redacción de dicho anexo, en la base específica 3 se ha omitido, entre las condiciones a cumplir por las personas beneficiarias, la exigencia de estar en posesión de un título acreditativo del nivel C1 de euskera, conforme al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, si el idioma A elegido para cursar el Grado en Traducción e Interpretación no hubiera sido el euskera, requisito que ha venido figurando en las anteriores bases reguladoras de dicha línea de subvenciones.

Por tanto, se propone incluir en la citada base específica el requisito para acceder a la condición de beneficiario de dichas becas de estar en posesión de un título acreditativo del nivel C1 de euskera, conforme al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, si el idioma A elegido para cursar el Grado en Traducción e Interpretación no hubiera sido el euskera.

Por consiguiente, a propuesta del diputado general y previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

#### ACUERDA

*Primero.* Modificar la base específica 3 de las bases por las que se regula la concesión de becas para la realización de prácticas de traducción en la Diputación Foral de Gipuzkoa (anexo I.4 del acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 21 de marzo de

Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura emango diren dirulaguntzen lerroen barruan, eta honela idatzita uztea:

«3. Onuradunak.

Oinarri hauetan arautzen diren beka hauen eskatzaile izan daitezke baldintza hauek egiaztatzen dituzten pertsona fisikoak:

a) Dirulaguntzen deialdia egiten den aurreko bi ikasturteetan Itzulpengintza eta Interpretazioko Graduaren ikasketak amaiturik izatea.

b) Gipuzkoako udalerriren batean azken bi urtetan erroldatuta egotea.

c) Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradu ikasketetan euskara ez bada A hizkuntza, C1 maila egiaztatzen duen euskara titulu baten jabe izatea, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera.

Ezin dira bekaren eskatzaile izan lehenago beka eskuratu dutenak.»

*Bigarren.* Gipuzkoako Foru Aldundian itzulpen praktikak egiteko beketarako eskabideak aurkezteko beste epe bat irekitzea, hilabetekoa, erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsioa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo us-tezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Donostia, 2023ko apirilaren 27a.—Juan José de Pedro Alonso, Diputatu Nagusiaren Alorraren idazkaria. (3062)

2023), dentro de las líneas de subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Igualdad Lingüística, que queda redactada en estos términos:

«3. Beneficiarias.

Podrán solicitar las becas reguladas en las presentes bases las personas físicas que acrediten:

a) Haber terminado los estudios del Grado de Traducción e Interpretación en los dos cursos inmediatamente anteriores al año de convocatoria de las ayudas.

b) Estar empadronadas en algún municipio guipuzcoano durante los dos últimos años.

c) Si el idioma A elegido para cursar el Grado en Traducción e Interpretación no es el euskera, estar en posesión de un título acreditativo del nivel C1 de euskera, conforme al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

No pueden solicitar esta beca quienes la hayan disfrutado con anterioridad.»

*Segundo.* Abrir un nuevo plazo de presentación de solicitudes para las becas para la realización de prácticas de traducción en la Diputación Foral de Gipuzkoa, por un plazo de un mes, desde el día siguiente al de la publicación del presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 27 de abril de 2023.—El secretario del Área del Diputado General, Juan José de Pedro Alonso. (3062)